



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko maiatzaren 16a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Kopentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Europan ezgaitasuna duten pertsonen urtea dela-eta antolatu diren jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, zahar-etxeetako erabiltzaileek sortutako zorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, errehabilitazio zerbitzuak behar dituzten gaixo kroniko edo/eta ondorioak dituztenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, ezgaitasunen bat duten pertsonen laneratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, gerraren aurkako plataformak deitutako manifestazio batean poliziak izandako jokaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Sanitaria BHiko egungo zentroa lekuz aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, NUPeko kirol politikari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Internet landa eskualdeetan garatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, bere buruaz baliatzeko arazoak dituzten pertsonentzako laguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua Interneteko Kalitate Agentzian (IQUA) egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, etxeko laguntza jasotzeko eskaerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, ACODIFNari (Nafarroako Minusbaliatu Fisikoen Elkarte) emaniko dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, patataren prezio-krisialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Los Arcosen eskualderako industrialde bat jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

- Galdera, otsailaren 14an segurtasun indarrek eginiko karga polizialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, aktibitate handiko hondakin nuklearretarako sakonera handiko biltegi geologiko bat jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 2003ko apirilean egindako bilerak (24. or.).
- 2003ko apirilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (24. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Kopentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak Kopentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du banantze- edo dibortzio- epaien ondoriozko mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengo- ei jarraikiz.

— Zer irizten dio Nafarroako Gobernuak bana- keta edo/eta dibortzio epaietan ezarritako mante-

nu- eta konpentsazio pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako berme-funtsa sortzeko aukera- ri?

Gaiaren konplexutasuna dela eta, Gobernuak berak adierazi beharko luke zein jarrera duen, gaiari buruz “Ezkontza- eta bikote-hausturen ondorengo pentsioen ez-ordaintzea Nafarroan” ikerketak agerian jarritako gogoetak egin ondoren, eta kontuan hartuta, batetik, Diputatuen Kongre- suak (1996ko ekainean) eztabaidatu baina onetsi ez dituen lege proposamenak eta, bestetik, estatu osorako Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa- ren menpeko Emakumearen Institutuak egindako lege aurreproiektuaren zirriborroa, aurrera atera- tzerik izan ez zuena.

(Informazio osagarria erantsi dugu).

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko otsailaren 26an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamen- tarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorreta- ko bulegoetan).

Galdera, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegiei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraituz.

1. Zenbat daude Nafarroan eta zenbat dira Foru Gobernuaren menpekoak?

Udalekin eginiko hitzarmenen bitartez diruz lagundutako zentroyen taula gaurkotua, non ikusten baita une hauetan Haur Hezkuntzako 37 zentro daudela gaur egun, erantsi diogu erantzun honi.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak lehengo zentro kopuru bera dauka; horrenbestez, 8 izaten jarraitzen dute.

2. Zenbat haurtzaindegi hartu dituzte bere gain udalek?

Lehen aipaturiko berak, hau da, 37.

3. Aurreikusi al du Gobernuak haurtzaindegi gehiago sortzea? Non? Noiz?

Erantsitako taulan islatzen da 2003. urtean aurreikusirik dagoela Haur Hezkuntzako 9 zentro abian jartzea, eta datozen urteetarako 26 zentrotako obrak, proiektuak, zabalitzeak edo lehen plangintzak egitea aurreikusi dela.

4. Lizarrako haurtzaindegia zein egoeratan dago? Zenbat haur joaten dira hara? Haurtzaindegia desagertzea aurreikusi al da?

Lizarrako "Izarra" Eskolaurreko Ikastetxean oraindik ere ez dira egin LOGSE legea garatzen duen 1004. Errege Dekretuan eta eskolaurreko ikastetxeak arautuko dituen foru dekretuaren zirriborroan ezarritako irizpideei egokitzeko obrak. Obra horiek ez dira hasi udalak baduelako proiektu bat ikastetxe hori bere baitan hartuko duena.

Bestalde, Udalak sustaturiko eskolaurreko ikastetxe bat eraikitzeke proiektu bat egin da.

Nafarroan behar diren Haur hezkuntzako ikastetxeen plangintzari begira CIESek egin duen azterlanaren arabera, Lizarran 3 ikastetxe eta 15 unitate behar dira.

Une hauetan, oraindik ere ez da erabaki zer egin. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eta Lizarrako Udalak oraindik ere ez dute egin 2002-2003 ikasturtea bukatu baino lehen egin beharreko jarduketan plangintza.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko otsailaren 28an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Europan ezgaitasuna duten pertsonen urtea dela-eta antolatu diren jardueri buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak Europan ezgaitasuna duten pertsonen urtea dela-eta antolatu diren jardueri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 24ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du Europan ezgaitasuna duten pertsonen urtea dela-eta antolatu diren jardueri buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

— Zer jarduera planifikatu du Nafarroako Gobernuak Europan ezgaitasuna duten pertsonen urtea dela ospatzeko? Zein da jarduera horien aurrekontua?

Gaur den egunean plangintzan jasotako jarduerak (litekeena da urtean zehar gehiago erans-tea edo daudenak aldatzea).

- “Arkitektura Oztopoak Deuseztatzeari buruzko Nazioarteko Topaketa”, Iruñean 2003ko urtarrilaren 17 eta 18an egin zena.

- “Gizarte integrazioari eta gizarteratze eta laneratzeari buruzko politiken gaineko jardunaldiak”, Iruñean 2003ko otsailaren 28tik martxoaren 1era bitarte egin zirenak, Espainiako Gizarte eta Osasun Ikasketen Fundazioak antolatuta.

- “Hezkuntza eta pertsona ezgaituak. Lehen Kongresu Nazionala, martxoaren 6tik 8ra. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak antolatu du.

- Europako “Igo Autobusera” kanpainari dagokionez, zenbait urrats eman dira Nafarroara etor dadin Hezkuntzari eta pertsona ezgaituei buruzko Lehen Kongresu Nazionala egiten den bitartean;

hau da, martxoaren 5ean Tuterara iritsiko litzateke, non seguruenen inaugurazio ofiziala egingen baita; martxoaren 6an eta 7an Iruñean egonen litzateke, eta kongresua egiten den Unibertsitateko campusean, eta Antoniutti Parkean aparkatuko du; izan ere, azken hori hiriguneko leku bat da, eta hiritar guztiek izanen lukete bisitatzeko aukera.

- “Pertsona ezgaituei buruzko adierazpen Insti-tuzionala”. Ekitaldi publiko ofiziala egitea.

- Aztertzen ari gara Estatuan aitzindaria den proiektu batean parte hartzea, Imsersok eta Kadizko Unibertsitateko ikertzaile-talde batek proposatutakoa. Proiektu hau, DESDE izenekoa, esperientzia pilotu eta aitzindaria da Estatu osoan. Haren helburu nagusia da ezgaituei ematen zaien arretari buruzko azterlan konparatiboa egitea definitutako arlo geografiko batzuetan; horretarako, arlo geografiko jakin batean ezgaitasuneko zerbitzuen inbentario bat egin nahi da, haien ezaugarri aipagarrienak deskribatuz; ezgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuen egitura eta mailak mugatu eta konparatu nahi dira, eta definituriko arlo geografiko ezberdinen arteko ezgaitasun zerbitzu nagusien probisio mailak neurtu eta konparatu nahi dira. Proposamenaren arabera, proiektuak martxotik abendura iraunen du. Hitzarmena sinatzeko formula administratibo bat bilatzen ari gara.

- Hasten ari den beste proiektu bat Santiago Bidea irisgarri egiteko proposamena da.

- Betiere, jarduera nagusia Nafarroako Foru Komunitatean pertsona ezgaituei laguntzeko plan integral bat egitea da, 2003-2007 urteetarako.

- Mugigarritasunari buruzko asteak: Merindadeko aste bat egitea proposatzen da; guztira 5 aste. Aste kulturalak, herrietako jaiak eta abar aprobetxatuz egingen dira. Aste horretan gutxienez ere hiru jarduera egin ahal izanen dira; horietan, ACODIFNAK proposaturiko jarduerak sartuko dira.

- * Ezgaituen “egunerokoari” buruzko erakusketak bat, argazki, panel, objektu, informazio eta abarrek...

- * Hitzaldi-eztabaida, eztabaida, mahai-inguru edo antzeko bat egitea ezgaituen esperientziei buruz. Eskualdeko gizarte-kolektiboek hartuko dute parte.

* Josteta jarduerak, esate baterako musika, abesbatza, gurpil-aulkian dantza egitea, zinema, antzerkia, mimoa, azoka txikiak...

- Zinema zikloa: Ezgaituentzako filmak proiektatzea, azpi-tituluak (gorrentzat), potentzia-gailuak dauzkaten aurikularrak (hipoakusietarako), audio-deskribapena (itsuak) eta gurpil-aulkietara egokitzeta mugimendu-zailtasun larriak dauzkaten pertsonak. Aurten 3 pelikula egokituko dira, Iruñeko zinemetako kartelera ofizialetan emanen direnetatik. Horma-irudiak, filmaren liburuxka, eraikinaren maketa eta aretoarena egokituko dira... Iruñeko Udala izanen da jarduera hori kudeatzeaz arduratuko dena.

- Antzerki zikloa: Proposamen honek bi ekintza biltzen ditu: Gayarre Antzokiaren programa ofizialeko 6 lan itsuentzat eta hipoakusia daukatentzat egokitzea. Jarduera otsailaren 2an hasi da, eta martxoaren 23rako eta apirilaren 20rako programaturik dago. Laugarren emanaldia uztailean eta bosgarrena urrian edo azaroan egingen dira. "Eszenatokia eta ezgaitasuna" ziklo berezia, Gayarre Antzokian egitekoa; hilerro obra bat, irailean hasita. Ziklo hau ezgaitasun guztietarako egokituko da: entzunezko deskribapena, zeinuen lengoia edo azpi-tituluak eta mugimenduzko ezgaitasuna dutenentzako neurriak erabiliko dira. Iruñeko Udala da jarduera hau kudeatzeko ardura izanen duena.

- Iruñeko Film laburren Jaialdia: Proposamen honek bi ekintza biltzen ditu: Ezgaitasunari buruzko gidoirik onenari saria emanen zaio. Lehiaketarako deia martxoan egingen da. Saria emateko honako baldintzak jarriko dira: obra Nafarroan filmatzea eta Iruñeko jaialdian estreinatzea. Jaialdia egokitzea, azpi-tituluak, entzunezko deskribapena eta sarbidea eta herria egokitzea bezalako neurriak hartuko dira. Maketak, planoak, liburuxkak, sarrerak...

- Publizitate kanpaina: Ez dugu uste lehentasunezko kontua denik publizitate kanpaina berriazko bat egitea. Gobernuak proposamen bat egingen du: saio bat egitea non komunikabideek (prentsa) beren inguruko gai sozialei ematen zaien tratamendua planteatuko duten. Eraginkorragoa izanen da jardueren egutegia edo programari buruzko argibideak emateko liburuxka bat argitaratzea Pertsona Ezgaituen Europako Urtea dela eta, hura gizartean zabaltzeko. Telebista autonomikoetan eta telebista nazionalean sentsibilizazio eta informazio saioak antolatu ahal izanen dira; bertan, ezgaitasunaren arloko eragile ezberdinak agertuko dira. Hori irati-emisoretara ere hedatu ahal izanen da (COPE), eta, esate baterako, hilean behin aldi horretan egin beharre-

ko jardueri buruzko informazioa emateko saio bat antolatu.

- Mintegi juridikoak: Ezgaitasunarekin loturiko gai juridikoei buruzko 3 mintegi antolatu nahi dira. Hiru hilabetez behin mintegi bat antolatuko da, gutxi gorabehera. Mintegi bakoitzak gai zehatz bat izanen du; esate baterako, "Ezgaitzea babes neurri bezala", "Ondarea eta fiskalitatea", "Ezgaitasunaren aitorpena". Eskubideak eta betebeharrak"... Mintegi horiek ondokoei zuzenduko zaizkie: ezgaituen kolektiboa, zerbitzu publiko nahiz pribatueta-ko kudeatzaileak, sektorearekin lotura dutenak, eta interesdunak, oro har.

- Aisialdiko jardunaldiak: Mugimendu-arazoak dauzkaten pertsonen, itsuei, gorrei edo adimen ezgaitasuna daukatenei egokitutako kirol jarduerak. Atletismoan, kirol egokituak, kirol konpartituak edo barnean egiteko jokoak.

- Lan eta enplegu jardunaldiak: Arlo honetan batera bildu beharko lirakeen bi proposamen daude, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Gaietako Departamentuak enpleguaren kalitateari buruz antolaturiko kongresuan sartu beharko lirakeenak.

- Ezgaitasuna eskolara doa. Jarduera honetan kontua da jakitea zer egin dezaketen ezgaitasunarekin loturiko hezkuntzaren arloko profesionalak, elkarte ezberdinetako pertsonen laguntzarekin; halaber, unitate didaktiko bat ere egonen da proiektatuko den filmari buruz; eztabaidan landuko da gaia eta gero interesa duten ikastetxe guztietara zabalduko da.

- Ezgaitasunari buruzko gida: Ezgaitasunaren arlo nagusiei eta sortzen dituzten gaixotasunei buruzko informazioa emateko dokumentu bat. Ukitutakoek eta auzo unitateetako zerbitzuetako profesionalak, osasun etxeek familiako medikuek eta abarrek ezagutu beharreko oinarriko informazioa. Ondokoak sartuko dira: gure erkidegoan haiei laguntzeko dauden baliabideak eta informazioa eskatzeko edo behar diren kudeaketak egiteko jakin beharreko helbideak. Gida hau egiteko, pertsona ezgaituen arloko kolektiboen laguntza beharko da. Hori egun Nafarroako Foru Komunitatean pertsona ezgaituei laguntzeko prestatzen ari den plan integralean (2003-2007 urteetarako) sartu beharko litzateke.

- Argazkiak: tailerra eta lehiaketa: Jarduera hau Nafarroa osorako planteatzen da, eta Aste Santuan hasiko litzateke. Abenduaren 3an bukatuko da, Pertsona Ezgaituen Nazioarteko Egunean. Argazki tailerra argazki hobek egiten eta haiekin esperimendatzen ikasi nahi eta ezgaituen elkarteekin lotura duten pertsonen zuzenduta

dago. Kolektiboen arabera eginen litzateke, eta argazkigintzaren arloko profesionalak emanen lukete, bi hilabetez, gehienez ere. Lehiaketak bi atal izanen lituzke: ezgaituek eginiko argazkiak eta sail irekia. Horren berezitasuna da pertsona ezgaituen zuzeneko ikuspegi bat lortuko dugula, gai pertsonal eta sozial ugarietarako buruzkoa; hori oso ere garrantzitsua izanen da gure kolektiboarentzat.

Finantzaketa

Aparteko bi kreditu onetsi dira.

– 60.000 euroko aparteko kreditu bat, "Pertsona Ezgaituen Europako Urtea dela-eta egin beharreko jardueretarako gastuak" izenekoa.

– 120.303 euroko aparteko kreditu bat, "Pertsona Ezgaituen Europako Urtea dela-eta egin beharreko jardueretarako gastuak" izenekoa.

Ez dago berariazko kontusail bat "Pertsona Ezgaituen Europako Urterako", zeren eta aurtengo aurrekontua luzatutakoa baita; joan den urtean, berriz, ezin izan zen kontzeptu hau aurreikusi.

Nafarroako Kutxa bezalako entitateek, bestek beste, finantzaketa emanen dute.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko martxoaren 4an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Galdera, zahar-etxeetako erabiltzaileek sortutako zorrari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak zahar-etxeetako erabiltzaileek sortutako zorrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 24ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du zahar-etxeetako erabiltzaileek sortutako zorrari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

• Noiz hasi da aplikatzen 15. artikulua, hau da, sortutako zorraren jakinarazpenari buruzko artikulua?

15. artikulua, sortutako zorraren komunikazioari buruzkoa, 2002ko abenduan hasi da aplikatzen,

eta zentro gerontologiko guztietako erabiltzaileei jakinarazi zaie metatutako zorra.

• Noiztik hasita hartzen da aintzat erabiltzaileek sortutako zorra, indarra hartu zuenetik ala zerbitzua erabiltzen hasi zenetik?

Erabiltzaileen zorra 1997tik aurrera hartzen da kontuan, zeren eta askotan ez baitaude idatziz jasota urte horren aurretiko dirusarreraren data zehatzak.

• Zerbitzua jasotzen hasten direnean, ematen al zaie finantzatzeko moduari buruzko informaziorik erabiltzaileei?

Erabiltzaile guztiek, gure zentroetakoak nahiz itunpeko zentroetakoek, bai eta zentro gerontologikoetarako egonaldietarako prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenek ere, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariek emandako informazioa jasotzen dute, dirusarrera egin edo prestazioa eman baino lehen.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko martxoaren 7an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Galdera, errehabilitazio zerbitzuak behar dituzten gaixo kroniko edo/eta ondorioak dituztenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak errehabilitazio zerbitzuak behar dituzten gaixo kroniko edo/eta ondorioak dituztenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko otsailaren 24ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du errehabilitazio zerbitzuekin loturiko zenbait gairi buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Osasun Departamentuaren ustez, gaixo kronikoei edo/eta errehabilitazioko tratamendua eskatzen duten ondorenak dauzkaten Osasunbidea-

Nafarroako Osasun Zerbitzuak eman behar die laguntza, Osasun Sistema Nazionalaren prestazioen katalogoan aurreikusitako moduan.

Horretarako, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, zuzendari-kudeatzailearen bitartez, behar den guztia egin du tratamendu horiek Nafarroako Foru Komunitate osoan bermatzeko. Helburu horrekin, Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitale guztietan eta osasun barruti guztietako osasun eskualde oinarrizkoetan modu deszentralizatuan banaturiko errehabilitatzaile eta fisioterapeuta profesionalen sare bat dauka.

Momentuz, errehabilitazio-tratamenduen eskaintzaren eta eskariaren egokitasun arazoikoa ikusita, ez da aurreikusi profesionalen plantilla zabaltzea, ez errehabilitatzaileena, ez fisioterapeuta.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko martxoaren 18an

Osasun kontseilaria. Santiago Cervera Soto

Galdera, ezgaitasunen bat duten pertsonen laneratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Úriz Iglesias jaunak ezgaitasunen bat duten pertsonen laneratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 3ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Luis Úriz Iglesias jaunak galdera egin du Foru Komunitatean ezgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeari buruzko maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legearen aplikazioari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi kontseilariaren erantzuna:

1.- Maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitatean ezgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeari buruzkoak, zenbait berritasun sartu ditu enplegu publikoa eskuratzeari dagokionean, bai behin betiko bai aldi baterako.

Gainera, Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legeko zenbait xedapen aldatzen ditu, nahiz eta aldaketa hori, azken batean, manu horiek aipatzen dituzten ehunekoak igotzera mugatzen diren. Horrek berekin ekarri du maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legea aplikatuz eta haren aurreikuspenak betez, oro har, kontratuen baldintza administratiboen pleguak manu horien testu berriari egokitzea.

2.- Enplegu publikoko eskaintzei dagokienez, maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legea onetsi ondoren, enplegu eskaintza bakarra onetsi da Foru Komunitateko Administrazioan, hain zuzen ere otsailaren 17ko 33/2003 Foru Dekretuan bildutakoa (2003ko martxoaren 7ko 29. NAO).

Foru dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatiaren arabera, minusbaliotasuna daukaten pertsonentzat 48 lanpostu gordetzen dira, hain zuzen ere enplegu eskaintzan sartutako lanpostu huts guttien % 5. Aurrerago, erreserba zein plazatan gauzatzen den zehaztu beharko da, eta deialdien behar bezalako jarraipena egin beharko da, lanpostu horien betetze-maila egiaztatu eta, kasua

bada, sobera dagoen kupoa hurrengo enplegu eskaintzan metatzeko.

3. - Aldi baterako kontratueterako maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legeak langile ezgaituei lehentasuna emateko ezarritakoari dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako organoak eta langileak kontratatze eskumena duten haien organo autonomoak urratsak ematen ari dira.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari dagokienez, aldi baterako kontratueterako zerrendak egiteko deialdietan (azkena 2003ko otsailaren 24ko 24. NAOan argitaratu zen), langile ezgaituei lehentasuna ematea jasotzen da (2.2. oinarria, bigarren lerrokada), eta hori kreditatzeko modua aurreikusten da (4.2. oinarria eta eskabide eredu).

Neurri hau aldi baterako kontratuetan aplikatzeko honako baldintza hauek daude:

A) Lanpostu bat aldi baterako betetzeko beharrene aurretik, hura betetzeko baldintzak betetzen dituzten behe mailako langile finkoek dute lehentasuna (apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuko 2. artikulua); hori dela eta, hartara nahikoa beharrian betetzen dira aldi baterako kontratazio-ria jo gabe.

B) Aurreko prozesuaren ondotik, aldi baterako kontratuak egiteko lehentasuna izanen dute funtzio publikoan sartzeko hautaprobak lanposturik lortu gabe gaintzea lortu dutenek, maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legean jasotakoaren arabera. Kolektibo honekin, aldi baterako kontratazioaren zati handi bat betetzen da; Foru Komunitateko Administrazioaren arloren batean % 70era iristen da.

C) 16/2002 Foru Legean jasotako neurria indarra sartu zenetik argitaratu diren aldi baterako kontratueterako deialdietan baizik ezin da aplikatu, zeren eta ez baita ezartzen atzeraeragineko ondorioirik duenik. Hori dela eta, ezin zaie Foru Lege hau onetsi aurretik aldi baterako kontratueterako eginiko zerrendei, hain zuzen ere gaur egun oraindik ere indarra dutenei.

D) Ez da ahaztu behar administrazio publiko batean aldi baterako kontratu bat lortu nahi duten langile ezgaituek kasuan kasuko hautaprobak gaintzeaz gainera, daukan ezgaitasuna lanpostu horretan aritzearekin bateragarria dela demostratu beharko dutela. Bi baldintza horiek batuta, esan

daiteke, lehenasuna izanda ere, gutxi direla administrazioan enplegua eskatzen dutenak.

Aurreko inguruabarrak direla eta, maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legearen eragina, gaur arte behintzat, eskasa izan da. Hala eta guztiz ere, behar diren jarraibideak eman zaizkie Foru Komunitateko administrazio departamentuei eta langileak kontratatze eskumenak dauzkaten erakunde autonomoei (bastez ere, Hezkuntza eta Osasun departamentuei, non kontratazio kopuru handienak izaten baitira) berariazko arreta jar

dezaten Foru Lege hau betetzen, hartara, ahal den neurrian, langile ezgaituen laneratzea erraztuz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko martxoaren 18an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, gerraren aurkako plataformak deitutako manifestazio batean poliziak izandako jokaerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak gerraren aurkako plataformak deitutako manifestazio batean poliziak izandako jokaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 3ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti andreak galdera egin du Gerraren aurkako plataformak deitutako manifestazio batean poliziak izandako jokaerari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak ez du jakin joan den otsailaren 14an gertaturiko legezko nahiz legez kanpoko manifestazioetan istilurik izan ote zen.

Galderan emandako datuetatik abiatuta, 2003ko otsailaren 15eko eta 16ko hemengo egunkarietan manifestazio edo antzeko izate nahiz helburuko ekitaldiei buruz agertzen den informazioa aztertuz, ez dugu salatutako egitateen inongo aipamenik aurkitu. Diario de Navarra (30. orrialdea) eta Diario de Noticias (78. orrialdea) egunkariak, berriz, aditzera eman zuten joan den otsailaren 15ean, Iruñean, UGT, CCOO, PSN, CDN eta IUK deitutako manifestazioan eta Gerraren aurkako Plataforma deitzen denak deitutakoan ez zela istilurik izan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko martxoaren 19an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Sanitaria BHIko egungo zentroa lekuz aldatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Sanitaria BHIko egungo zentroa lekuz aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 3ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak galdera egin du Sanitaria BHIko egungo zentroa lekuz aldatzeari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Zentro onkologikoa eraikitzeko Nafarroako Ospitalea berrantolatu beharko da; berrantolaketa horrek eragina izanen du "Sanitaria" Bigarren Hezkuntzako Institutuan, zeinak Ospitaleko barrutiko bi eraikin hartzen baititu. Eraikinetako bat, M-6 deitzen duguna, laster hustu beharko da. Jarduketaren larriak eskatzen du, aldi baterako konponbide gisa, eraikin modular bat erabiltzea. Eraikuntza sistema horrek, betiere, eska daitezkeen kalitate berme guztiak dauzka; ez dago horren pareko alternatibarik ikastetxe baten ondoan lekua behar den kasuetarako, oraingoan bezala, ikastetxea bi egoitzatan banatu beharrik ez izateko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko martxoaren 20an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Laguna Peña

Galdera, NUPeko kirol politikari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak NUPeko kirol politikari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 3ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du NUPeko kirol politikari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako

Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

- Esku hartzen al du Hezkuntza eta Kultura Departamentuak unibertsitatearen kirol politikan? Esku hartzen baldin badu, zehaztu zertan esku hartzen duen.

- Gobernuak ba al du sortzen ari diren disfuntzioen berri?

- Kirol institutuak ezer egingen du? Zer?

- Nola egingen ditu bateragarri Gobernuak kirola egitea eta taldeen, jokalarien adinaren eta NUPek jokalariai hartzearen artean gorde beharreko oreka?

Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateetako kirol jarduera Nafarroako kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legeko III. kapitulu-ko III. tituluaren araututa dago; 19.2 artikuluan kirol klubak sortzeko aukera aurreikusten da, IV. titulu-

luan –Nafarroako Kirol Entitateak– ezarritakoari jarraituz; hori guztia, betiere, Elkartzeko eskubideari buruzko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoa betez. Hori dela eta, kirol administrazioak ez du inongo jardunik arlo honetan, unibertsitateek, Nafarroako Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoek, arau indardunak betetzen dituzten bitartean; beteko ez balitu, behar diren diziplina bideak erabili beharko lirateke.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko martxoaren 14an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti andreak galdera egin du Nafarroako Unibertsitate Publikoko kirol politikari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Kirola unibertsitatearen arloan garatzeko jardunbideak unibertsitateak berak ezarri beharko ditu. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez du inongo eskumenik Nafarroako Unibertsitate publikoaren “kirol politikan”.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko martxoaren 20an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña

Galdera, Internet landa eskualdeetan garatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Internet landa eskualdeetan garatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 3ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna jaunak galdera egin du Internet landa eskualdeetan garatzeari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Aurreikusia al du Nafarroako Gobernuak Internet landa eremuetan ezartzeko jarduketa bera-riazkorik? Hala baldin bada, ezer zehaztu al deza-ke?

Zergatik ez da lotu Nafarroako Gobernuaren arlo horretan Europako Batasunak diruz lagundutako programetara?

Lehenbizi aipatu beharra dago telekomunikazioak eta informazio gizartearen sustatzeko planean jasotako ekimen guztiak Foru Komunitate osoari zuzentzen zaizkiola, landa eremua edo hiri eremua den begiratu gabe. Hori dela eta, arlo horietan Internet bitartez baliatzeko moduko zerbitzu berri bat abian jartzen den bakoitzean (e-administrazioa, e-osasuna, e-hezkuntza edo e-enpresak) landa eremuetako biztanleak zerbitzu horietarako sarbidea izatea errazten ari gara, zeren eta bideratzen baitu haietara urrundik sarbidea izatea, bidaiarik egin gabe; hartara, lurralde kohesioa errazten da.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere zenbait lekutan ez dago Internetera abiadura egoki batean sartu ahal izateko behar den azpiegitura.

Hori dela eta, informazioaren gizartearen garatzeko eta Europako zuzentarau berriak aplikatzeko, herritar guztiak lerro finko batetik Internetera sarbidea izatea nahi dugu, abiadura onargarri batetik, telefono sare konmutatu finkoaren bitartez gehienetan.

Ekimen honekin onurarik handiena izanen dutenak gaur egun zerbitzua ETACS sistemaren bitartez jasotzen dutenak dira, TRAC soluzioaren baitan, zeinak telefono mugikor analogikoa erabiltzen baitu telefono finkoaren zerbitzua emateko, zeren eta ezin baita internetera sartu 2.400 bit/s baino abiadura handiagoarekin (abiadura arrunta, ordea, 56 kbit/s da). Telefónicak gaur egun 1.083 abonaturi ematen die zerbitzu teknologia hori erabiliz (237.498 abonatu nazio mailan).

Informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzko 34/2002 Legeak ezarri zuen Telefónicak, zerbitzu unibertsal bat ematen duen aldetik, Zientzia eta Teknologia Ministerioari jarduketa plan bat aurkeztu behar diola; plan horretan, xehetasun guztiakin azaldu beharko du nola ekin, epe ertainean, teknologia hori garatzeari, hain zuzen ere erabiltzaileen beharrianei erantzuteko moduko abiadurak bideratzeko.

Estaldura plana honezkero aurkezturik eta onetsirik dago, eta aurreikusten du TRACeko erabiltzaileen % 30i zerbitzua eman ahal izatea ekainaren 30a baino lehen, % 70i 2003ko abenduaren 31 baino lehen eta gainerakoei 2004an. Bestalde, autonomia erkidego bakoitzeko TRACeko abonatuak % 50ek 2003an izanen dute estaldura.

Telefónicak aurreikusirik dauka aurten 150 milioi euro inbertitzea sarearen azpiegitura zabalteko, landa inguruneko lerroen migrazioa osatu arte inbertsioetan egin nahi den ahaleginaren barruan (guztira 475 milioi euro inbertitu nahi dira lau urtetan).

Telefónicak proposatu du proiektu osorako teknologien soluzio konbinatu bat erabiltzea; honako hauek bilduko lituzke:

- Kobre planta zabaltzea.
- GSM (ahotsa) GPRS (datuak).
- LMDS (Telefonia finkoa irrati bidez, 3,5 GHz-ko bandan).
- Satelitea.

Soluzio horretarako baldintza batzuk bete behar dira; hasteko, Telefónicak ez du lizentziarik telefonia mugikorreko eta telefonia finkoko zerbitzua 3,5 GHz-ko bandan irrati bidez emateko. Hori dela eta, akordioren batera iritsi beharko da hori egiteko baimena daukaten operadoreekin. Telefonia mugikorraren kasuan, Telefónica Móviles da

zerbitzua emanen duena; LMDSn, berriz, akordio bat izenpetu beharko litzateke C2 lizentzia daukaten operadoreekin (Iberbanda, NeoSky 2002 edo BASA).

Abonatuaren dentsitate handia dagoen lekuetan, LMDSen alde edo kobrezko parearen alde egingen da. Abonatuaren dentsitate txikia dagoen lekuetan, sare mugikorren bitartez (GSM / GPRS) beteko da zerbitzua, eta zailtasun orografikoen ondorioz aipatu teknologiak erabiltzerik ez dagoen kasuetan baizik ez da satelitea erabiliko, irtenbiderik garestiena baita hori.

Amaierako banaketak aukera eman lezake abonatuaren % 18rekin LMDS teknologia erabiltzeko, % 65 GSM/GPRS teknologia erabiltzeko, % 14ekin kobrezko pareta eta gainerako % 3arekin satelitea erabiltzeko.

Erabiltzaileek arau indardunetan eskatzen diren prestazio eta erraztasun berak jaso beharko lituzkete, esate baterako operadorea aurretik hautatzea eta haren pareko prestazioa.

Zientzia eta Teknologia Ministerioak garatutako ekintza horretaz aparte, Nafarroako Gobernuak zenbait ekimen bultzatu ditu Foru Komunitatean azpiegituren hedapena sustatzeko bidean. Horietako batzuek Europako zenbait programaren bidezko finantzaketa izanen lukete; aipatzekoak dira, besteak beste, PRAINA programa –Nafarroako Ekintza Berritzaileen Lurraldeko Proiektua–, PYRENET proiektua –Pirinioko sei erregioetako mugez gaindiko kooperazioa, INTERREG IIIAren eta Nafarroako Gobernuaren finantzaketarekin–, INFOLOCAL 012 proiektua, Kodes Mendiko Mankomunitateko Udal Administrazioa zentralizatzeko proiektu pilotoa.

Halaber, beste bi proiektu aztertzen ari dira, azpiegituren zabalpen horri zuzenduak.

Azkenik, aipatu beharrekoa Nafarroako Foru Komunitateak, daukan garapen ekonomiko orokorra ikusita, ez duela biderik 1. helburuko eskualde-erako diseinaturiko laguntza europarrak eskuratzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko martxoaren 19an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, bere buruaz baliatzeko arazoak dituzten pertsonentzako laguntzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak bere buruaz baliatzeko arazoak dituzten pertsonentzako laguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 3ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du bere buruaz baliatzeko arazoak dituzten pertsonentzako laguntzari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

1. Adina edo ezgaitasuna dela-eta bere buruaz baliatzeko zailtasunak dituzten zenbat pertsonari kendu die Nafarroako Gobernuak 2002an etxe etxeko laguntza horren ordez dirulaguntza emateko?

Ez gure espedienteetan, ez gure datu basean ez daukagu datu hori. Oinarrizko gizarte zerbitzuek etxe etxeko laguntzarako dirulaguntzari buruz igortzen diguten eskarian ez dago jasota onuradunak Etxe Etxeko Laguntza Zerbitzuaren laguntzarik jaso ote duen.

2. Orain arte dirulaguntza jasotzen zuten adineko zenbat pertsonari –ezgaitasuna edo bere buruaz baliatzeko zailtasuna dutenei– jaitsi zaie laguntzen zenbatekoa?

2002ko otsailean, 1.445 pertsonak jaso zuten etxe etxeko laguntzarako dirulaguntza; horietatik 28k laguntza txikiagoa jaso dute aurten (2003ko otsailera arte).

3. 2002an eta 2003an dirulaguntza jasotzen zuen zenbat pertsonari kendu zaie laguntza edo jaitsi zaie laguntzaren zenbatekoa?

2002an eta 2003ko otsailera arte 526 baja izan dira.

Bajaren arrazoa	Bajen kopurua
Borondatezko baja.	18
Etxe Etxeko Laguntza	
Zerbitzura deribatua	14
Familia osaketa aldatu da	13
Hiltzea	373
Eguneko zentroetan sartzea	2
Egoitzetan sartzea	69
Baremo ekonomikoa gainditzen du	1
Baliabide ekonomikoak edo bizikidetasunekoak gainditzen du	15
Beste arrazoi batzuk	21

4. Aplikaturako baremoetako edo/eta administraziozko zer aldaketak justifikatzen du aldaketak egin izana dirusarrerak igo ez diren kasuetan edo lehengoratzeko psikofisikoa gertatu ez den kasuetan?

Bajen arrazoiak 3. galderako taulan jaso ditugu. Laguntza ekonomiko bat onesteko nahiz ukatzeko balorazioa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 5eko 458/2003 Ebazpeneko 7. puntuan jasotakoa da.

“Premia egoeren balorazioa Familia Atalak egin du, betiere mendetasun eta bizikidetasun baldintzen arabera eta egoera ekonomikoaren arabera, ondokoei erreparatuta:

– Osasun Etxearen txostena edo txostenak (sendagilearena, erizainena eta balorazio funtzionalaren eskala).

– Gizarte txostena, non etxebizitza bakarrean batera bizi diren pertsonak islatuko diren; haien adinak, lan orduak eta familia zamak ere zehaztuko dira.

– Etxebizitza batean batera bizi diren pertsonen dirusarrerak, ahaidetasun maila gorabehera, betiere ezarritako baremoen arabera.

– 65 urte baino gehiago dituzten pertsonen ondasunak.

– Kontuan hartuko da onuradunaren edo haren ezkontidearen izenean ohiko etxebizitza alokatzeko gastua, hilabeteko 200 euro bitarte, urtean 2.400 euro bitarte, baldin eta laguntzaren onuraduna beste etxebizitza baten jabea ez bada.

5. Zer politika darabil UPNko Gobernuak bere buruaz baliatzeko arazoak dituzten pertsonen laguntza emateko etxez etxeko zerbitzuaren bidez emandako zuzeneko zerbitzuak ematerakoan, dirulaguntzak ematerakoan eta zahar-etxeetara bideratzerakoan? Atal horietako bakoitzean 2000, 2001 eta 2002an gastatutakoa jakin nahi dugu,

bai eta etxez etxeko laguntza zerbitzuan azken hiru urteotan hartutako pertsonen kopurua, etxean laguntza emateko dirulaguntzena eta zahar-etxeetan ingresatzeko dirulaguntzena ere.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak emandako dirulaguntzen ondorioz exekutaturiko gastua:

(eurotan)

	Zaharrak	Ezgaituak	Guztira
2000	4.378.040,23	333.349,15	4.711.389,38
2001	5.133.697,00	414.372,00	5.547.069,00
2002	5.909.515,05	450.510,12	6.360.025,17

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko martxoaren 14an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Galdera, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua Interneteko Kalitate Agentzian (IQUA) egoteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Óscar Alonso Toledo jaunak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua Interneteko Kalitate Agentzian (IQUA) egoteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 7ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Óscar Alonso Toledo jaunak galdera bat egin du Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua Interneteko Kalitate Agentzian (IQUA) egoteari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Ba al da inolako arrazoirik Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua IQUAren aurkezpenean izan zedin?

Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 21. artikulua ezarri zuen Ikus-entzunezkoen Kontseilua zuzenbide publikoko ente bat dela, eta nortasun juridiko berekia, Administrazio Publikoekiko independentzia, erabateko gaitasuna eta bere eginkizunak betetzeko autonomia organiko eta funtzionala dituela.

Printzipio horrekin bat, eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak Interneteko Kalitate Agentzian (IQUA) parte hartzeari dagokionez, departamentu honek ez dauka esateko ezer.

Zer prozesuk eraman ditu zure departamentua eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua azken hori IQUAn sartzea?

IQUA ekimena Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren merezimendu eksklusiboa da. Herri-

lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua pozik dago ekimen horrekin, zeren eta Internet sarearen garapena sustatu nahi baitu, hartara haren kalitatea bermatzeko xedez; Interneten diharduten eragile ezberdinen arteko adierazpen eta lankidetzeta plataforma baten moduan dihardu, eta edukien unibertsaltasuna, irisgarritasuna eta kalitatea bermatzen ditu.

Gainera, agentziaren nazioarteko izaera ikusita, ekimen honekin Nafarroa arlo horretako Euro-

pako abangoardian jarri da, Europako herrialde eta erregio garatuenean aurretik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko martxoaren 19an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, etxeko laguntza jasotzeko eskaerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak etxeko laguntza jasotzeko eskaerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 3ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du etxeko laguntza jasotzeko eskaerei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoari jarraikiz.

1. Etxez etxeko laguntza jasotzeko zenbat eskaera aurkeztu da azken bost urteotan? Zenbat eskaera, berriz, dirulaguntza jasotzeko? Horietako zenbat onetsi dira eta zenbat ukatu?

Familia Atala etxeko laguntza ekonomikoetarako eskabideak tramitatzen ditu.

URTEA	LUZATUAK ETA BERRIAK	EMANDAKO BERRIAK
1998	1.833	494 *
1999	1.572	610
2000	1.655	700
2001	1.838	588
2002	2.034	493

* 1998an onetsitako espedienteen kopuruaren jaitziera aipagarriak, zeinek eragina baitute 1999ko luzapenetan, funtsean Iruñeko Udalarari eginiko transferentzietan zor zaizkie, hain zuzen ere ordubete eta bi ordu bitarteko etxeko laguntzaren beharra erakusten zuten eskabide guztiei dagozkienak. Bestalde, irizpide ekonomiko berriak aplikatzeak eragin handia izan zuen.

2001 eta 2002ko taula erantsi dugu, non izandako bajei eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuei deribatzen diren arrazoi eta espedientei buruzko informazioa ageri den.

2. Zenbatekoa izan da horien zenbatekoa? Azken bost urteotan, urteko aurrekontuaren zer ehuneko egiten dute?

1998	3.788.647,76
1999	4.195.722,60
2000	4.717.399,50
2001	5.547.069,00
2002	6.360.025,17

3. Zein izan dira aurrera egin ez duten eskaerak ukatzeko arrazoi zehatzak?

2001 eta 2002ko taula erantsi dugu.

4. Zer irizpide zehatz erabili izan da eskaerak eman ala ukatzeko?

Laguntza ekonomiko bat onesteko nahiz ukatzeko balorazioa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 5eko 458/2003 Ebazpeneko 7. puntuan jasotakoa da.

“Premia egoeren balorazioa Familia Atalak egin du, betiere mendetasun eta bizikidetasun bal-

dintzen arabera eta egoera ekonomikoaren arabera, ondokoei erreparatuta:

– Osasun Etxearen txostena edo txostenak (sendagilearena, erizainena eta balorazio funtzionalaren eskala).

– Gizarte txostena, non etxebizitza bakarrean batera bizi diren pertsonak islatuko diren; haien adinak, lan orduak eta familia zamak ere zehazten dira.

– Etxebizitza batean batera bizi diren pertsonen dirusarrerak, ahaidetasun maila gorabehera, betiere ezarritako baremoen arabera.

– 65 urte baino gehiago dituzten pertsonen ondasunak.

– Kontuan hartuko da onuradunaren edo haren ezkontidearen izenean ohiko etxebizitza alokatze-ko gastua, hilabeteko 200 euro bitarte, urtean 2.400 euro bitarte, baldin eta laguntzaren onuraduna beste etxebizitza baten jabea ez bada.”

5. Ba al da inolako baremorik eskaerak onargarriak diren eta zenbatekoa izan behar duten erabakitze? Zein?

Dirusarreraren baremo bat badago; haren arabera ezartzen da laguntzaren zenbatekoa.

2003an ETXEKO LAGUNTZAKO DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO DIRUSARREREN BAREMOA I. ERANSKINA

(Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen
otsailaren 5eko 458/2003 ebazpena)

A. 65 URTE EDO GEHIAGO DITUZTENEI APLIKATZEKO ZAIEN DIRUSARREREN BAREMOA

KIDEEN KOPURUA	OINARRIZKO DIRUSARRERAK	DIRUZ LAGUNDUTAKO KOPURUA
1	5.607,56 euro (933.019 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
2	8.411,34 euro (1.399.529 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
3	11.215,12 euro (1.866.039 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
4	14.018,90 euro (2.332.549 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
5	16.822,68 euro (2.799.058 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA

B1. 65 BAINO URTE GUTXIAGO DITUZTENEI APLIKATZEKO ZAIEN DIRUSARREREN BAREMOA

KIDEEN KOPURUA	OINARRIZKO DIRUSARRERAK	DIRUZ LAGUNDUTAKO KOPURUA
1	12.628,56 euro (2.101.216 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
2	18.942,84 euro (3.151.823 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
3	25.257,12 euro (4.202.431 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
4	31.571,40 euro (5.253.039 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
5	37.885,68 euro (6.303.647 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
6	44.199,96 euro (7.354.255 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA

B2. 65 URTE BAINO GUTXIAGO ETA LANEAN ARI DIREN BI KIDE EDO GEHIAGO DAUZKATENENTZAKO BAREMOA

KIDEEN KOPURUA	OINARRIZKO DIRUSARRERAK	DIRUZ LAGUNDUTAKO KOPURUA
2	20.837,12 euros (3.467.005 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
3	27.782,83 euro (4.622.674 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
4	34.728,54 euro (5.778.343 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
5	41.674,25 euro (6.934.012 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA
6	48.619,96 euro (8.089.681 pezeta)	KOSTUA, GUZTIRA

SALBUESPENAK

Ez zaie laguntzarik emanen 65 urte edo gehiago izan eta ondoren ezartzen diren ondasun edo dirusarrerak gainditzen dituztenei:

PERTSONA KOPURUA	KAPITALA /ONDASUNAK	INTERESAK
1	30.050,61 euro (5.000.000 pezeta)	1.202,02 euro (200.000 pezeta)
2	48.080,97 euro (8.000.000 pezeta)	1.923,24 euro (320.000 pezeta)
3	60.101,21 euro (10.000.000 pezeta)	2.404,05 euro (400.000 pezeta)

6. Dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egiten al da hartzaileak 65 urte bete baditu? Zer dela eta?

Balorazioa aldatzen da, zeren eta kasua "ezgaitua familia gaztearekin" sailekoa izatetik "2 zaharren familia" sailekoa izatera pasatzen baita. Normalean, dirulaguntza bai ordu kopuruetan, bai diru kopuruan handitzen da. Gerta daiteke diru kopuruak gora edo behera egitea dirusarreraren arabera, zeren eta 65 urtetik gorakoak izaki gazteek baino dirusarrera txikiagoa bai baitituzte.

7. Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak, beste zenbaitetan egin duen bezala, Parlamentuari eskatzeko lege proiektu bat onets dezan, haren bidez oinarritzko zerbitzu hori betetzeko beharrezkoak diren premiei aurrekontu aldetik erantzuteko?

Etxeko laguntzako dirulaguntzarako kontusaila zabaltzen ahal da; hori dela eta, laguntzak emateko proposamenak beti estaltzen dira, eta urtean urteko ebazpenean ezarritako irizpideen arabera ematen dira; 2003koen kasuan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 5eko 458/2003 ebazpena da aplikatzekoa.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko martxoaren 20an. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, ACODIFNari (Nafarroako Minusbaliatu Fisikoen Elkarte) emaniko dirulaguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ACODIFNari (Nafarroako Minusbaliatu Fisikoen Elkarte) emaniko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 31ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galde-

ra egin du ACODIFNari (Nafarroako Minusbaliatu Fisikoen Elkarte) emaniko dirulaguntzei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

1. Egin al du edo egingen al du Nafarroako Gobernuak inolako kontrol edo auditoretzarik jakiteko zertan erabili dituen ACODIFNAk gobernutik jaso dituen dirulaguntzak? Zein? Zein izan da horien emaitza?

2. Kasuan kasuko ataletako arduradun eta zuzendariak izan al dute bilerarik langileekin, hautagai-zerrenda alternatiboarekin edo bazkideen batzarrarekin –ACODIFNAko zuzendaritzakoe-

kin izandako harreman logikoez gain, jakina-salaketak egiaztatzeko eta beharrezkoa baldin bada hartu beharreko neurriak zehazteko?

2003ko otsailaren 7an eskutitz bat igorri zitzaion José Javier Miranda Erro jaunari urte bereko urtarrilaren 27ko haren eskabideari erantzuteko; izan ere, eskabide haren bitartez eskatzen zuen Departamentuak esku hartzea Nafarroako Minusbaliatu Fisikoen Elkarte alderdi ekonomikoak eta funtzionamendua fiskalizatzeko, honako zehaztapen hauekin:

Elkartzeko eskubideari buruzko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, elkarteek, beren barneko funtzionamenduan, beren estatutuetan ezarritakoaren arabera jardunen dute.

Elkarteen barneko antolamendua eta funtzionamendua demokratikoa izanen dira, aniztasuna guztiz errespetatuz.

Halaber, elkarteek beren bazkideen zerrenda gaurkotua izanen dute, eta entitatearen ondarearen, emaitzen eta finantza-egoeraren iduri fidela edukitzea bideratuko duen kontabilitatea eramanen dute; kontabilitatean ere egindako jarduerak jasoko dira. Halaber, ondasunen inbentario bat egin beharko dute eta liburu batean gobernu eta ordezkari organoen bileren aktak jaso beharko dituzte. Kontabilitatean aplikatzekoak diren berriazko arauak bete beharko dira.

Bazkideek aurreko idatz-zatian aipatzen den dokumentazio guztia eskuratu ahal izanen dute, ordezkari organoen bitartez, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritako moduan.

Elkartearen kontuak Batzar Orokorra urtero onetsiko ditu.

Bere jardueren garapenean, haiei buruzko berriazko legedia bete beharko da.

Bazkideen taldeak aurkeztu eta sinaturiko idatzian, zenbait gauza egozten dira, oro har Zuzendaritza Batzarraren jokabide demokratiaren aurkakoez eta ekonomia, lan politika eta funtzionamendu arloetako irregulartasunez; horiek guztiek, elkartzeko eskubideari buruzko aipatu legeko betekizunak urratu direla pentsatzeko bidea ematen dute.

Horri dagokionez, legeak berak ondokoa dio:

1. Ordena jurisdikzional zibila izanen da eskuduna, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoan ezarritako moduan, elkarteen trafiko juridiko pribatutik eta haien barneko funtzionamendutik ondorioztatzen diren asmoak direla eta.

2. Elkarteen erabaki eta jarduketak edozein bazkidek edo interes legitimoa kreditatzen duen edozein pertsonak aurkatu ahal izanen ditu, baldin eta antolamendu juridikoaren aurkakoak direla irizten badie, epaiketan dagokien tramiteen bidez.

3. Bazkideek elkartearen erabaki eta jarduketak aurkatu ahal izanen dituzte, beren ustez estatutuen aurkakoak badira, berrogei eguneko epean, haiek hartu ziren egunetik kontatzen hasita; haiek zuzentzea edo deuseztatzea eta haien prebentziozko etetea eskatu ahal izanen dira, edo bi asmo horiek batera metatu ahal izanen dira Prozedura Zibileko Legean ezarritako tramiteen bitartez.

Bestalde, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatu zuen maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuaren 37. artikulua ezarritakoaren arabera, honakoak dira gizarte zerbitzuen ikuskatzaitzaren oinarriko eginkizunak:

a. Emandako funts publikoen xedea eta erabilera gainbegiratzea.

b. Baldintza funtzional eta materialei buruzko arauen betetzea egiaztatzea.

c. Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eskubi-deen errespetua zaintzea.

d. Gizarte zerbitzuen arloko entitate eta erabiltzaileei beren eskubide eta betebeharrei buruz informatzea.

e. Ohartarazpen eta gomendio jarduketak egitea, azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legeko 14. artikuluan ezarritako moduan.

Eginkizun horietatik guztietatik, egindako egozketei dagokienez, departamentu honen kontu-hartzaileak "emandako funts publikoen xedea eta erabilera gainbegiratu" baizik ez luke eginen, eta ez luke eskumenik izanen akordioen balizko aurkatean esku hartzeko, ez eta lan arloko kontratazioen irregulartasunetan ere; azken kasu horretan, lan ikuskatzaitzara edo arloan arloko berriazko instantzietara jo beharko litzateke.

Aipaturiko gutunaren kopia erantsi dugu.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2003ko apirilaren 7an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria
Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, patataren prezio-krisialdiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak patataren prezio-krisialdiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko apirilaren 3ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera bat egin du Patataren prezio-krisialdiari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

1.- Merkatu libreko gizarte batean, ez da gobernuen egitekoa prezioen arloan esku hartzea. Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak, ITG Agricolaren bitartez eta OPPOSAREN bitartez, hobekuntza genetiko eta kalitatea bultzatzen ditu, eta horiek eragina izaten dute prezioan.

2.- Foru Komunitatea Espainiako zatia den aldetik Europako Batasunaren zatia ere bada, eta Europako Batasuna da kide dituen estatu guztiek merkataritza ez distortsionatzeko bete behar diren arauak ezartzen dituen; horrenbestez, bera da etiketei buruzko arauak ematen dituen ere .

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko apirilaren 15ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Ignacio Javier Martínez Alfaro

Galdera, Los Arcosen eskualderako industrialde bat jartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Los Arcosen eskualderako industrialde bat jartzeari egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 31ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Los Arcoseko industrialdeari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagaitia Ripoll andrearen erantzuna.

1.- Los Arcosen eskualdeko industrialde bat garatu eta exekutatzea sustatzeko erabakia hartu zen egunetik, behar ziren aurretiko lanak egin dira: esate baterako 1.500 eskalako lan topografiko xehea; azterlan geoteknikoa eta kanpoko azpiegitura eta zerbitzuei buruzko azterlana (linea elektrikoak, saneamendua, uren hornidura eta abar). Horretarako, behar ziren elkarrizketak izan ziren arlo bakoitzeko entitate eskudunekin.

Gaur egun, honako lanak egiten ari gara: aurreproiektua –ekainerako bukatuko dena– eta udalez gairako eraginari buruzko plan sektoriala –datorren udan tramitera aurkeztuko dena–.

Halaber, zenbait urrats ematen ari dira lurjabeekin, lurak erosteko.

Udalez gairako eraginari buruzko plan sektoriala onetsi ondoren, urbanizazio proiektua eta

ukituriko ondasun eta eskubideak mugatzeko proiektua tramitatuko dira; aurrerago, obren lizitazioari ekinen zaio, haiei ekin ahal izateko.

Estellerriko eskualdeko industrialdearen koka-pena erabakitzeari dagokionez, funtsezko faktore guztiak hartu ziren kontuan, baita eskualdeko hiri-burutik hurbil egotea (distantzia, autobiaz, ez da 10 minutu baino handiagoa izanen).

Bestalde, ezaguna da industriarako lurzorua-ren arloko politikan Nafarroako Gobernuak aurrera daraman lana; eskualdeko industrialdeak egiteaz gainera, aktiboki sustatzen ditu, leku guztietan, toki esparruko jarduera ekonomikoetarako industrialdeak. Legegintzaldi honetan horrelako 24 egin dira.

Horri dagokionez, une honetan, besteak beste, Lizarrako udalerrian industrialde bat jartzea aztertzen ari gara.

3.- Behin baino gehiagotan eta Batzarreko foru parlamentariari 2002ko ekainaren 28an emandako erantzunean informatu dugun bezala, esan behar dugu Nafarroako Gobernu bere zerbitzuak eskaintzeko eta eredu mankomunatuan laguntzeko jarrera ezin hobean dagoela; horretarako, ezinbestekoa da ukitutako aldeek hala nahi izatea. Gogoratu beharra dago kudeaketa mankomunatu-ko batere ekimenik (lehenbiziko 1980koa) ez dela aurrera atera aldeak ados ez egoteagatik. Ugari izan dira urbanizaturiko eskualdeko industrialdeak, Nafarroako leku guztietan egiten ari direnak, Los Arcosekoaz gainera; haien zerrenda ez dugu eginen, jakina delako.

Iruñean, 2003ko apirilaren 22an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria Nuria Iturriagaitia Ripoll

Galdera, otsailaren 14an segurtasun indarrek eginiko karga polizialei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak otsailaren 14an segurtasun indarrek eginiko karga polizialei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko apirilaren 3ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko apirilaren 25an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti andreak galdera

egin du Otsailaren 14an segurtasun indarrek eginiko karga polizialei buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Lehendik gai honi buruzko galdera bat egin baitzen, eta hura formulatzeko balizko arrazoiei buruzko datu berririk eman ez denez, aurreko galderaren erantzuna berretsi behar dut, eta hartara berriz ere jotzeko eskatzen dizut.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko apirilaren 24an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, aktibitate handiko hondakin nuklearretarako sakonera handiko biltegi geologiko bat jartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aktibitate handiko hondakin nuklearretarako sakonera handiko biltegi geologiko bat jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2003ko martxoaren 31ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak galdera egin du aktibitate handiko hondakin nuklearretarako sakonera handiko biltegi geologiko bat Nafarroan jartzeari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1.- Espainiako Erresumako Gobernuak ez dio Nafarroako Gobernuari informaziorik igorri Nafarroan sakonera handiko biltegi geologiko bat jartzeari buruz, aktibitate handiko hondakin nuklearrak lurperatzeko. Horretarako leku egokirik badago, Espainiako Gobernuak Nafarroako Gobernuari behar den informazioa jakinarazi beharko dio.

2.- Nafarroako Gobernuak ez du uste ez egoia ez zuhurra denik arlo honetan balizko egoerei buruzko iritzia ematea, erreferentzia zehatzik ez dagoen bitartean.

3.- Esandako guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak ez du behar adina informazio esateko zein den konponbiderik egokiena gaurko eta etorkizuneko Nafarroaren eta, oro har, Espainiaren energia arloko beharrianak betetzeko.

Beti ere, nazioko politika energetikoak izaera estrategikoa du eta foru administrazioaren esku-menak gainditzen ditu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu-

ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2003ko apirilaren 16an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui
Ros

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2003ko apirilean egindako bilerak

BATZORDE IRAUNKORRA

8an, 16an eta 30ean.

2003ko apirilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Vitelsa Norteren proposamena, Nafarroako Parlamentuak soinua eta bideoa bereizmen txikian hartu eta digitalki grabatzeko sistema informatikoaren kontratazioa dela eta.

– Simave, SAren proposamena, Nafarroako Parlamentuak soinua eta bideoa bereizmen txikian hartu eta digitalki grabatzeko sistema informatikoaren kontratazioa dela eta.

– Rosa Horcada Baztan andrearen idazkia; horrekin batera, zenbait agiri eransten dio Nafarroako Arartekoaren bulegorako administrari lanpostu baterako deialdirako aurkeztutakoari.

– Gillorme Urmenetaren idazkia; harekin batera, C mailako funtzionario gisa duen izendapenaren ziurtagiria.

2an:

– Arantzako Udalaren idazkia; horren bitartez, “Gerra Zibilean Nafarroan fusilatutako eta errepre-saliatutako pertsonak gogoratzeko, omentzeko eta dagokien ordain morala emateko akordioa” Parlamentuari itzultzen dio, euskaraz ez dagoelako.

– Administrazio Kontrataziorako Batzarraren idazkia. Horrekin batera, Arbitraje Batzordeak hartutako erabaki banatzailea, Parlamentuaren egoitza berriaren zaharberritze-lanetan zenbait instalazio aldatzeko espedienteari dagozkion prezioak finkatzeko arbitraje-prozeduran.

3an:

– Europako Administrazio Publikoaren Institutuaren idazkia; harekin batera, mintegi bati buruzko dokumentazioa.

– Teiako Udalaren erabakia, “Euskaldunon Egunkariaren” aldekoa.

– Computadores Navarra, S.A.ren idazkia. Abala deuseztatzea eskatzen du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, foru parlamentari Joxe Fernando Barrena Arza jaunak trafikoko eskumenei buruz eskatutako informazioa.

– Comptos Ganberako lehendakariaren erabakia. Horren bitartez, Nafarroako Su-Itzaltze Zerbitzuaren Partzuergoa fiskalizatzea 2002ko ekitaldiko lan programan sartzen da.

4an:

– M^a del Mar Lainez Gil andrearen idazkia; horrekin batera, zenbait agiri eransten dio Nafarroako Arartekoaren bulegorako administrari lanpostu baterako deialdirako aurkeztutakoari.

– Valentziako Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakia, Plan hidrológico nacionalari eta Ebroko urak aldatzeari buruzkoa.

– CALREren idazkia. Horren bidez, arma bakteriologikoen erabileraren aurkako Europako eguna sortzeko ekimenaren berri ematen du.

7an:

– Sant Cugat del Vallésko Udalaren Osoko Bilkuraren erabakia, “Euskaldunon Egunkaria” ixtearen aurkakoa eta haren kazetari eta zuzendarien aldekoa.

– Terrasako Udalaren Osoko Bilkuraren erabakia, “Euskaldunon Egunkaria” ixtearen aurkakoa eta haren kazetari eta zuzendarien aldekoa.

– Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzaren idazkia, bonbaketari estatubatuarrak Nafarroatik igaro izanari buruzko informazioa eskatuz martxoaren 27an igorritako idazkia jaso izanaren berri emateko.

8an:

– Palamosko Udalaren erabakia, “Euskaldunon Egunkariaren” aldekoa.

– “Ingenieria de proyectos” delakoaren gonbitea, hasierako ekitaldira joateko.

9an:

– Santa Coloma de Farnersko Consell Comarcal de la Selvaren Osoko Bilkuraren erabakia, “Euskaldunon Egunkariaren” aldekoa.

– Rubiko Udalaren erabakia, “Euskaldunon Egunkariarekin” atxikimendua erakusteko.

10ean:

– CALREren idazkia; horrekin batera, Europako Erregioen Legegintza Asanbladaren ondorioak.– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, CODIFINARI emandako dirulaguntzei buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

11n:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, honako erabakia dela-eta egindako ziurtagiria: Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeenganako sexu-abusu eta tratu txarren jarraipenari eta arretari buruzko jarduketan protokoloa taxu dezan.

14an:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Komunikabideetan dagoen erakunde-publizitatearen kuantitatea kontrolatzeari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eskatutako informazioa.

– Oscar Villar Echarte jaunaren idazkia; haren bitartez, zenbait iradokizun egiten ditu Parlamentuaren egoitzari buruz.

– Konstituzio Auzitegiaren idazkia; Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeko 2.3 artikulua dela-eta aurkezturiko konstituziokontarakotasuneko 228/03 zenbakiko arazoa Nafarroako Auzitegi Nagusiaren zibileko eta zigor-arloko salak trami-tera onartu dela jakinarazten du.

15ean:

– FEMPEXen idazkia; horrekin batera, “Udalek Estatuko Tributueta parte hartzeari buruzko txostena”.

16an:

– Comptos Ganberaren idazkia. Horren bidez, Arasko Udalaren kudeaketa publikoari buruzko fiskalizazio txostena egiteko Nafarroako Gobernuak eginiko eskaria dela-eta Mahaiak eta Eledunen Batzarrak hartutako erabakia eskatzen da.– Cardedeuko Udalaren erabakia, “Euskaldunon Egunkariari” buruzkoa.

– Justizia Auzitegi Nagusiaren idazkia; horrekin batera, 6 eta 2/2002 auto metatuei buruzko epaia.

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia. Horren bitartez, Saharako herriaren aldeko deklarazioa jaso izanaren berri ematen du.

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia. Horren bitartez, honako erabakia jaso izanaren berri ematen du: Erabakia, horren bidez, Espainiako Estatuko gobernua premiatzen da drogak kontrolatzeko egungo politikak hobetu ditzan.

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia, honako erabakia jaso izanaren berri ematen du: Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du “Xurgape-nerako Europako jarraibideari” buruzko Europako zuzentarau berrirako proiektua.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-mentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Batzor-de Iraunkorrerako deialdia egitea eskatzen du.

22an:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, patataren prezio-krisialdiari buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, zenbait aurrekontu-aldaketa baimentzen

dituzten erabaki, foru agindu eta ebazpenen jakinarazpenak igortzen ditu.

– Paymo, SAREN eskaintza, liburutegiko irakurgelarako altzariak hornitzeko.

– Incamasaren eskaintza, liburutegiko irakurgelarako altzariak hornitzeko.

– Konstituzio Auzitegiaren idazkia; horren bidez, beste epe bat ematen du 228/2003 konstituzio kontraktasuneko arazoari alegazioak aurkezteko.

– Decono, SLren eskaintza, liburutegiko irakurgelarako altzariak hornitzeko.

23an:

– Sant Quirze de Besorako Udalaren erabakia, “Euskaldunon Egunkariari” buruzkoa.

24an:

– Etxalarko Udalaren idazkia; horren bitartez, “Gerra Zibilean Nafarroan fusilatutako eta errepre-saliatutako pertsonak gogoratzeko, omentzeko eta dagokien ordain morala emateko akordioari” atxikitzen zaio.

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia, Irakeko erasoaren aurka Parlamentuak hartutako erabakia jaso izanaren berri emateko.

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia. Horren bitartez, honako erabakia jaso izanaren berri ematen du: Erabakia, Nafarroako Gobernuak premiatzen duena Bardeako tiro poligonoa kentzen laguntzeko jarduketa plana egin dezan.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Los Arcosko industrialdeari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

25ean:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, otsailaren 14an segurtasun indarrek eginiko karga polizialei buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Diputatuen Kongresuaren idazkia. Horrekin batera, Mahaiak hartutako erabakia, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina aldatzeko lege proposamena tramitera onartu izanari buruzkoa.

– Kanpo Arazoetarako Ministerioaren idazkia. Horren bidez honako erabakia jaso izanaren berri ematen du: “Nafarroako Parlamentuak adierazten du Iraken aurkako eraso militarren kontra eta konponbide baketsua bilatzearen alde dagoela”.

28an:

– Iruñeko Udalaren erabakia; Parlamentuaren garajerako sarbidea eraikitzeko obren lizentziarako eskaria ezesten dueno.

– Xirivellako Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakia, Plan hidrologiko nazionalari buruzkoa.

– Kanpo Arazoetarako Ministerioaren idazkia. Horren bidez, Saharako herriaren alde Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak onetsitako adierazpen instituzionala jaso izanaren berri ematen du.

– Kanpo Arazoetarako Ministerioaren idazkia. Horren bidez, “Xurgapenerako Europako jarraibideari” buruz Nafarroako Parlamentuko Industria Batzordeak onetsitako erabakia jaso izanaren berri ematen du.

– National Conference of State Legislatures delakoaren urteko konferentziarako gonbidapena. San Francisco-n 2003ko uztailaren 21etik 25era egingen da.

– Gonbidapena, Congres des Pouvoirs Locaux et Regionaux de L'Euro a Jourées Européennes de la Nature et des Terroirs biltzarrera joateko.

29an:

– Auzitegi Gorenaren idatzia, Batasuna desegitea eskatzen duena.

30ean:

– Villanova i la Geltrú-ko Udalaren erabakia, “Euskaldunon Egunkariari” buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, El Corte Inglés. S.A.ri buruzko espediente espediente dela-eta foru parlamentari Felix Puyo Rebollo jaunak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Aktibitate handiko hondakin nuklearretarako sakonera handiko biltegi geologiko bat jartzeari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	